

*Pasatu uda on
eta jai zoriontzuak!*

EZKABARTE

Udal Informazio Aldizkaria



2017ko ekaina
[45. zenbakia]

Ekainaren 9an ospatutako Arreko Hirutasun Txit Santuaren jaoetan, gure herrietako festa egutegiaren lehendabiziko txupinazoa izan da. Geroxeago Zildotzeko jaietan eta Ezkabarte Ibarreko festan ere ongi pasatu dugu, baina oraindik berotasun eta alaitasunez betatako egun aunitz falta zaigu gozatzeko gure ibarreko herrietan zehar. ✨

2017/2019 Aldirako toki inbertsioen plana

Tokiko Administrazioaren Zuzendaritza Orokorrak, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen plana arautzen duen 18/2016 Foru Legean jasotako jarduketak aurrera eramateko, onartu du Libreki Erabakitzeke gisa Nafarroako Udal eta Kontzejuek jaso beharreko zenbatekoen hasierako zerrenda eta horien urtekako banaketa.

Ekarpen ekonomiko hauen helburu nagusia da derrigorrezkoak diren udal eta kotzeju zerbitzuak Nafarroako Foru

Komunitate osoan eskuragarri daudela bermatzea.

Jakinarazpen moduan, adierazi nahi dugu Udal honek eta bere Kontzejuek zenbait diru-laguntza eskatu dituztela eta zain gaudela jakiteko Nafarroako Gobernuak horietako batzuk edo, kasurik onenean, guztiak ematen dizkigun.

Departamentu berdinak onartu ditu, biztanle kopuruaren arabera, Erakunde bakoitzari egin beharreko ekarpen finkoak, ondoko taula honetan ikusgai:

ERAKUNDEA	BIZTANLEAK	2017KO EKARPENA	2018KO EKARPENA
EZKABARTEKO UDALA (Anoz, Ezkaba, Garrues)	26		20.545,00 €
ARREKO KONTZEJUA	1.079		65.004,15 €
AZOTZEKO KONTZEJUA	153		24.996,24 €
ZILDOTZEKO KONTZEJUA	61		21.021,37 €
EUSAKO KONTZEJUA	56		20.799,07 €
MAKIRRIANGO KONTZEJUA	79		21.799,07 €
ORIKAINGO KONTZEJUA	118		23.484,06 €
ORRIOKO KONTZEJUA	57		20.848,55 €
SORAURENGO KONTZEJUA	205	27.242,91 €	

Herriko bestak eta egun bereziak

Arre	ekainaren 9tik 12ra
Zildotz	ekainaren 17 eta 18a
Ezkabarteko bestak	ekainaren 24 eta 25a (Zildotz)
Orikain	uztailaren 22, 23, 24 eta 25a
Azotz	abuztuaren 11, 12 eta 13a
Sorauren	abuztuaren 25etik 28ra

Eusa	irailaren 2 eta 3a
Arreko krossa	irailaren 10a
Orrio	irailaren 22, 23 eta 24a
Ezkaba	urriaren 12a
Makirriain	azaroaren 11
Garrues	abenduaren 8a



Argazki: Eva Lara

Udalak hasierako onespina eman dio Ezkabarteko Udaleko Plan Orokorrari

Urteetako hobekuntza, aldaketa, joan-etorri eta hizka-mizken ondoren, behin onartuta egonik Ezkabarteko Haraneko Lurralde Antolamendurako Eredua eta Estrategia –EMOT- eta dagokion Aurretiko Kontzertua formalizatu ondoren, hasi zen Udal Plan Urbanistikoa lantzen.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 47.2.11) artikuluan aipatzen denaren arabera, plangitza orokorrerako baliabideen hasierako onspenerako beharrezkoa da Udalbatzako kideen zenbateko legalaren gehiengo osoaren aldeko botoa. 2016ko abenduaren 22an Ezohiko Bilkuran, gehiengo osoarekin eman zitzaion hasierako onspena Plan Orokorrari.

Onetsitako Plana bi hilabetez egon zen publikoki eskuragarri eta epe horretan testuaren zenbait alegazio jaso ziren. Halaber, Ezkabarteko Haraneko Kontzejuari eta Iruñerriko Mankomunitateari txostenak eskatu zitzaizkien planteamenduen eraginpean dauden mankomunitatearen eskuko udal zerbitzuei buruz. Era berean, hasierako onarpenera helarazi zaio lurralde antolamendu eta urbanismo alorrean eskumena duen departamentuari, Nafarroako Gobernuan dagozkion alorretako departamentuetako txostenak lortu ditzan. Txosten guztiak biltzen direnean, eta jasotako emaitzen arabera, berriz ere Ezkabarteko Udalbatza izango da bozkaketa bidez behin-behineko onarpeneraren aldeko erabakia hartuko duena, gero Nafarroako Gobernuak behin-betiko onartu dezan. ■




2017rako Aurrekontuen onespena

Abenduan aurrera eraman eta onetsi edo baztertzen dituzte Udalek hurrengo urterako aurrekontuak. 2016ko abenduaren 1ean Ohiko Bilkuran onetsi ziren gehiengo bidez 2017rako aurrekontuak Ezkabarten.

Jarraian aurkeztuko dugun taulan ikus daitezke gastuak eta diru-sarrerak eta agerikoa da gastuen artean kontzepturik nabarmena Inbertsio errealak direla. Gastu horretan biltzen dira Haranean aurreikusitako obra guztiak, tartean Olaibarrera bidean Eusa aldera ura eramateko obra, garrantzitsuenetariko bat.

GASTUAK-ATALAK


1.909.310,00 €



1. Langileak	414.250,00
2. Ondasunak eta zerbitzuak	411.700,00
3. Finantza gastuak	11.250,00
4. Transferentzia arruntak	230.110,00
6. Inbertsio errealak	769.500,00
9. Finantza-pasiboak	72.500,00

DIRU SARRERAK-ATALAK

1.909.310,00 €



1. Zuzeneko zergak	647.600,00
2. Zeharkako zergak	40.000,00
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	88.260,00
4. Transferentzia arruntak	371.550,00
5. Ondareari dagozkion diru sarrerak eta aprob.	1.500,00
6. Inbertsio errealen besterentzea	40.000,00
7. Kapitalen transferentziak	540.400,00
9. Finantza-pasiboak	180.000,00



Argazki: Eva Lara

Udaleko kontratazioak

Ezkabarteko Udalak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean, Haranean erroldatuta eta langabezian zeuden **25 pertsona** baino gehiago kontratatu ditu Zerbitzu Anitzetako lanak aurrera eramateko.

Aurreko komunikazioetan behin eta berriaz aipatu dugun bezala, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diru-laguntzak ematen dizkie Tokiko Erakundeei langabezian dauden pertsonen kontratazioan lagundu edo sustatzeko. Kontratuak gehienez ere sei hilabeteko iraupena dute, lanpostuak sortzen, ikasten eta kurrikulumean plusak gehitzen jarraitzeko aukera bat da. Badakigu kontratu hauek ez direla idealak, baina bultzada bat dira esperientzia edo, besterik gabe, laguntza ekonomikoa lortzeko bidean. Horregatik gogorara-

zi nahi diegu interesa duten pertsona guztiei dagokien enplegu bulegora hurbil daitezen eta izena eman dezaten loretain edo eraikuntzako peoi gisa, izan ere normalean hori izan ohi da baldintzetako bat kontratazioak egin ahal izateko NEZ-ari Haraneko langabetuen zerrenda eskatzerakoan.

Udal honek gure bizilagunei lana emateko eta ahal duen heinean euren egoera ekonomiko eta profesionala hobetzeko duen interesak ahalbidetu du gure Haraneko langabetuen ehuneko altu bati lana eman ahal izana. Pertsona hauek egiten dituzten lanen artean daude kale eta udal espazioen garbiketa eta mantenua, sastrakak kentzea, inguruaren mantenua, konponketa txikiak, postontzietarako banaketak... ■



▶▶ IKASTURTE BERRIRAKO IZENA EMATEA

Argazki: Eva Lara

Udal Aldizkariak ematen digun aukera baliatu nahi dugu Ezkabarteko Udal Polikiroldegiko instalazioekin lotutako zenbait konturen berri eman eta informazioa zabaltzeko:

- ▶ Uztaila osoan instalazioak itxita egongo dira.
- ▶ **Abuztuan polikiroldegiko sarrera doakoa izango da.** Hilabete horretako 16an hasita eta 31ra bitartean (biak barne) doako klaseen ekintza egutegia antolatu du Udalak, kirola egiten hasi edo saiatu eta horrek dakartzan onurak eta pozak bizi nahi dituen pertsona ororentzat (Egutegia).
- ▶ Udal Polikiroldegiko denboraldi berria 2017ko irailaren 1ean hasi eta 2018ko ekainaren 30ean bukatuko da.
- ▶ Izen emate berriak Udalaren webgunean bertan egin ahal izango dira: www.ezcabarte.es
- ▶ Dagoeneko bazkidea bazara eta gure instalazioak erabiltzen jarraitu nahi baduzu ez duzu deus egin beharrik, automatikoki berrituko da bazkide txartela irailan.
- ▶ Aldiz, baja eman nahi baduzu Ezkabarteko Udalean jakinarazi beharko duzu

uztailan, abuztuan edo irailan (irailaren 20an beranduenez) eta horretarako email bat bidali beharko duzu helbide honetara: deportes@ezcabarte.es. Aipatutako epean baja eman ez baduzu, araudian adierazita dagoen moduan, behin ikasturtea hasita ez dira kuotak inolaz ere itzuliko eta izena eman duten pertsona guztiek denboraldia bukatu bitarteko kuota guztiak ordaindu beharko dituzte, hau da 2018ko ekainaren 30a arte.

- ▶ Denboraldi osorako ordainketa bakarra egiten baduzu irailaren 28a baino lehen deskontu txiki bat izanen duzu, 150 € besterik ez dituzu ordainduko (aukera honi buruz Udaletxean galdetu). Bestela, 18 euroko 10 kuota ordaindu beharko dituzu, prezioak mantendu ditugu.
- ▶ Edozein arazo edo zalantza baduzu jar zaitetz harremanetan Udaletxearekin telefono honetan 948 33 03 41, laguntzeko gaude.

Bukatzeko, gure poza adierazi nahiko genuke, izan ere bazkideei bidalitako gogobetetasun-inkesta batean oso emaitza positibo eta pozgarriak jaso ditugu. **Ekainan bazkide kopurua 215ekoa zen.** Instalazioek, arretak, garbitasunak eta begiraleek oso puntuaketa altua lortu dute.

Asmoa ildo beretik jarraitzea da, baina beti aukera dugun heinean hobetzeko xedearekin. Hori dela eta, lerro hauen bitartez eskertu nahi dizuegu daukazuen interes eta gogoia eta, aldi berean, kirola egiten jarraitzea animatzen zaituztegu.

Irailaren 1ean prest egon behar dugudenok ikasturte berria hasteko kirolari lotutako ilusio eta asmo onekin...

zure zain gaude! !!!

KIROL JARDUERA BERRIAK DOHAINIK DENONTZAT

—Abuztuaren 16tik 31ra (biak barne)—

	ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
GOIZEZ	09:30-10:00		ABDOMINAL		ABDOMINAL	ABDOMINAL
	10:00-11:00		TOTAL T.		TOTAL T.	TOTAL T.
	11:00-12:00		CARDIO BOX		CARDIOFIT	CARDIO BOX
ARRATSALDEZ	19:00-20:00	PILATES	PILATES Y SPINNING	PILATES	PILATES Y SPINNING	
	20:00-21:00	JUMPFIT	BODY-TONIC	JUMPFIT	BODY-TONIC	



A ÍSLA tu casa y AHORRA

Aislamiento térmico y acústico

MADE IN NAVARRA

Aislanat, único aislante de celulosa **fabricado en Navarra.**

Aisla tu casa con celulosa, **en un día, sin obra, a un bajo coste** y con un producto totalmente **ecológico.**

50% ahorro
En un día
Sin obra



AISLANat
AISLANTE DE CELULOSA



BIOKLIMA NATURE

948 33 00 15 -627 41 22 69

www.aislantesaislanat.es

Estamos en el Polígono Industrial de Oricain/Orikain

2017/2018 aldirako ikastaro eta jarduerak

Datorren 2017/18 ikasturtean Ezkabarteko Udalak eskainiko dituen ikastaro eta jarduerak prestatzen ari gara.

Izen emateak, ohikoa den bezala, telefono honen bidez 948 012 012 egingo dira **abuztuaren 21etik irailaren 4ra** (biak barne).



Egutegia aurreratu dugu persona guztiak euren eginbeharren, ordutegien, lanaldien eta abarren arabera datorren 2017/18 ikasturterako antolatu ahal izateko.

Izen emate epea hasi baino lehen postaz jasoko duzu behin-betiko informazio guztia daukan eskuorria.



JARDUERA	EGUNA	ORDUA	TOKIA
ARTISAUTZA	Osteguna	17:00 - 20:00	Gizarte Etxea (Arre)
KOSMETIKA	Asteazkena	18:00 - 20:00	Gizarte Etxea (Arre)
DANTZAS	Astearte edo osteguna	19:00 - 21:00	S.U.M. (Arre)
ESKULANAK	Ostirala	17:00 - 20:00	Soziedadea (Sorauren)
EGURRA LANTZEN	Ostirala	19:00 - 21:00	Gizarte Etxea (Arre)
ERLAXAZIOA ETA ARNASA	Asteazkena	19:15 - 21:15	S.U.M. (Arre)
GIMNASIA RITMIKOA (5-13 urte bitartekoentzat)	Ostirala	18:30 - 20:30	S.U.M. (Arre)
BORROKA LIBREA (5-15 urte bitartekoentzat)	Astearte eta osteguna	17:15 - 18:15	S.U.M. (Arre)

Telefono honen bitartez **948 33 03 41**, "dagoeneko" egin daitezke aurretiko izen emateak **Borroka Libre Eskolarako**, etxeko txikienei zuzendutako jarduerak da eta jakin nahi dugu zenbateko quoruma daukagun horrela taldeak eta espazioak antolatu ahal izateko jarduerak piztutako interesaren arabera. *Badakizu, zure seme-alabak Borroka Eskolan parte hartzea nahi baduzu eman izena, ez bukaerarako utzi.*



Zergatik eman beharko luke izena nire seme/alabak Borroka Olinpikorako Kirol Eskolan?

Burlatako Borroka Klubak kudeatuko du eskola, ibilbide luzea, esperientzia zabala eta arrakasta ugari dituen. Jarduera 5 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta Arreko Erabilera Anitza Gelan emango da astearte eta ostegunetan 17:15etatik 18:15etara, eskola egutegiari jarraiki.

Borroka Olinpikoa ukipen-kirola da eta, oinarrian, borrokaldia irabazteko tapizaren barnean, arauak jarraituz, aukariaren gorputza heldu (**edozein motatako kolpeak guztiz debekatuta daude**) eta lurrera erortzea lortu behar da. Gero tapizaren gainean bere sorbaldak gelditu mantentzeko gai



Burlatako Borroka Klubaren emakumezkoen taldea.

ABUZTUAREN 19AN,
LARUNBATEAN, 12:00ETAN
EZKABARTEKO POLIKIROLDEGIAN
BORROKA OLINPIKO
ERAKUSTALDIA.
ANIMATU ZAITEZ, EZUSTEKOA
HARTUKO DUZU!!!!

izan behar da, arbitroak aurrekoa gertatu dela egiaztatu eta erabilitako teknika eta mugimenduen arabera puntuaketa ematen duen bitartean.

Frogatuta dago Borroka Olinpikoa haurren garapenerako oinarriko zenbait baloreen irakasbide dela. Euren garapen fisikoan laguntzen du, onuragarria da sozializaziorako, euren gaitasun eta mugak neurtzen irakasten die. Autoestima eta konfiantza indartzen ditu. Hiperaktibitatea eta agresibitatea bideratzen ditu. Helburuak lortzeko lan egiten ikasten dute, bizitza errealean gertatzen den bezala.

Gogoia baino ez da behar geroz eta haur gehiagok egiten duten kirola probatzeko...

INFORMAZIO GEHIAGO HEMEN:

Roberto Martínez: 670 240 052 eta José Manuel Menéndez: 686 384 941
clubdeluchaburlada@gmail.com
<http://clubdeluchaburlada.blogspot.com.es/>
[@luchaburlada](http://www.facebook.com/clubdeluchaburlada)

¿TE gusta el fútbol?



"FIESTA FIN DE CURSO" temporada 2015/2016 equipos: Primera Autonómica y Fútbol Txiki 6, 9 y 10/11 años

Todos los niños y niñas interesados con edades comprendidas entre los 5 y 10 años tienen toda la información en:

<https://twitter.com/cdavancezcabart>

solicita el boletín de inscripción, rellénalo y envíandoslo

a: avance.ezcabarte.txiki@gmail.com

o llama al 686970775 y te informará Joaquín.

ven a disfrutar y compartir los valores de amistad, respeto y compañerismo de la escuela de fútbol del



C.D. AVANCE-EZKABARTE

!!! Animate !!!

ARREKO UR BILTEGIA

Hemendik gutxira bukatuko dira Arreko Ur biltegi berriko obrak. Dena ongi bi-dean, irailan bukatzea aurreikusita dago.

Biltegi berria joan den urteko irailan hasi zen eraikitzen 1.378.382,41 € aurrekontuarekin. OHL –Obrascón Huarte Lain– enpresa ari da lanak egiten.

Biltegi berria aurrekoa zegoen toki berean ari dira eraikitzen, zaharra ezustean erori, bidean harrapatu zuen guztia eraman eta kalte handiak eragin baitzituen 2015eko ekainan. 490 metroko kotan dago, laukizuzena da eta atxikita dauka giltzategela bat.

Hormigoi armatuz eraikita dago, 5.000 m³-ko bi edukinontzi ditu, beraz guztira



Argazki: Eva Lara

10.000 m³-ko edukiera du eta uraren maila 7 metrora iristen da. Biltegi honekin hornituko dira nagusiki ondorengo herriak: Atarrabia, Arre, Orikain, Azotz, Sorauaren, Eusa, Olaiz eta Enderitz.



ORVE-REN LAGUNTZAK ETXEBIZITZEN ERABERRITZE BABESTURAKO

Iruñerriko Etxebizitzak eta Eraikinak Eraberritzeko Bulegoak (ORVE, Oficina de Rehabilitación de Viviendas y Edificios) 2017an babespeko etxebizitzak Eraberritzeko Erabiltzaile eta bizilagunen komunitateentzako banakako laguntzen berri ematen du.

Araudia etxebizitzetako jardun babesgarriei buruzko 61/2013 Foru Dekretuak ezartzen du eta baita 22/2016 Foru Legeak ere, etxebizitzaren alorrean herritarrak babesteko neurriak hartzeko aurreikusitakoa, beti ere hasi gabeko lanei badagokie, etxebizitzaren barnealdean, zein kanpoaldean eraikinaren beharrezko eraberritzerako.

Ondokoei buruz jakiteko: araudia, baldintzak, laguntzak... ORVEren bulegoarekin harremanetan jarri telefonoz, 948 130 233, edo joan Burlatako bulegoetara, Joaquín Azcárate z/g kalean.

EZKABARTEKO UDALAK EZ DU ERASO
SEXISTARIK ONARTZEN.

ESAN EZ GENERO INDARKERIARI.

ESAN EZ INDARKERIA MOTA GUZTIEI.



Argazki: Eva Lara



Jaiotzak

Beti izaten da poz ikaragarria umetxo bat jaiotzea; horregatik, hartu gure Zorionak eta ongietorria:

Carla Purroy Sierra (Eusa)
Amanda Martinez Garcia (Arre)
Asier Sanchez Calleja (Arre)
Laia Lopez Echaui (Azotz)

Heriotzak

Gure oroimenean daude:

Justo Guerrero Acosta (Arre)
Isabel Arilla Rived (Arre)
Luis Alvira Gurrupide (Orikain)
Juan Angel Lecumberri Ramirez (Zildotz)
Jose Fernandez Martinez (Arre)
Francisco Ichaso Bustince (Arre)
Concha Aldaba Subiza (Orrio)
Martin Artazcoz Artazcoz (Zildotz)
Mercedes Cilveti Ciaurriz (Arre)

TELEFONO INTERESGARRIAK:

Ezkabarteko Udala (Orikain)	948 330 341	Bidez Osasun Etxeak (Arre)	948 332 335
Kexak eta iradokizunak	012	Ezkabarte kiroldegia (Azotz)	948 330 758
Genero indarkeriaren aurka	016	Publizitatea Aldizkarian	948 248 324